

Linfomadunen bizi kalitatea hobetzeko bidea

Osakidetzak ikerlan bat garatuko du Durangon, linfoma duten eta kimioterapia jasotzen duten pazienteengan ariketa fisikoa egiteak dakarren onura aztertzeko. / 4

Dendak Bai Fest jaialdiak merkataritza, gastronomia eta aisialdia batuko ditu asteburuan / 5



Dendak Bai Fest jaiadiaren iazko edizioa.



Iratxe Etxebarriak '7.300 miligramo eszitalopram' aurkeztuko du Hitzen, otsailaren 27an / 17



Oier Ardanza bere ibilbideko denboraldirik onena egiten dabil Zornotza Saskibaloi Taldean / 20



'Txikuri' ANBOTOgaz igo zen Oiz tontorrera, hildakoen omenez lore-sorta eskaintzera (bideoa webgunean).

OIZKO HEGAZKIN ISTRIPUA GOGOAN

Jose Antonio Izurieta 'Txikuri' suhiltzailea zen 1985eko otsailaren 19an hegazkin batek Oizen istripua izan zuenean. Egun haietan bizitako tragediaren lekuko izan zen. / 2-3



Jone Guenetxea IURRETA

Jose Antonio Izurieta 'Txikuri'-k (Iurreta, 1938) 47 urte zituen Oizko hegazkin istripua gertatu zenean. Hondamendi hura iltzatu geratu da bere memorian. Suhiltzailea zen eta guardia amaituta zeukan hegazkinak Oizko antena jo zuenean.

Suhiltzailea zinen lurretako basean?

Bai, 33 urtean egon nintzen han. Hasieran, Durangoko basea zen, Iurretaren desanexioa gauzatu barik zegoen eta.

Zelan gogoratzen duzu 1985eko otsailaren 19a?

Sasoi hartan, 24 orduan lan egiten genuen, eta beste 24 orduan atseden hartzen genuen. 08:00etan nire guardia amaitu, eta kafea hartzera joan ginen taberna batera. Etxera joan nintzenez, egun hartan Montejo ate berria ipintzen zebilela dut akorduan, lapurretan egin zigutelako. Momentu hartan andreak esan zidan Oizen hegazkin istripua gertatu zela. Basera joan nintzen, ziztu bizian, baina lankideak joanda zeuden. Antenetara joan nintzen *todoterrenoagaz*.

Goiuriako aldetik igo zinen?

Bai, antenetaraino joan nintzen, eta han Durangoko Dorrego abizeneko medikua topatu nuen. Lurreratze-trena ikusi genuen. Hegazkinak antena jo, eta Mallabia aldera jausi zen. Arbola guztiak aurretik eraman zituen. Lankideek esan zidaten Trabakutik joan behar nuela, Oizen beste aldean zeudela. Atoan joan nintzen, eta han elkartu ginen denok. Geroago jakin nuen Muniozguren baserriko Juan Mari Urkiola izan zela lehenengoa hondamendia ikusten.

Zer topatu zenuen Mallabira heldu zinenean?

Deskontrola. Ika-mika sortu zen, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak, biek, erreskate lanen agintaritzak hartu gura zutelako. Beste suhiltzaile batzuk ere etorri ziren. Hegazkinak apurtuta zituen hegoak, eta fuselajearen barruan bidaiariak kiskalita zeuden. Gu heldu ginenerako ez zegoen surik. Kea, bai. Trailer bi etorri ziren zurezko kaxekin, gorpuak bertan sartzeko. Armada ere etorri zen. Landa hark sasiak zituen eta garbi-garbi utzi zuten operatiboa bertan ipintzeko.

Zelakoak izan ziren hurrengo egunak?

Biharamunean guardia izan nuen. Sua amatatuta zegoen arren, kontrolatzen ibili ginen. Iurretako suhiltzaileok foren-

"Heldu ginenean, hegazkinak apurtuta zituen hegoak, eta bidaiariak kiskalita zeuden barruan"

JOSE ANTONIO IZURIETA SUHILTZAILEA OIZKO HEGAZKIN ISTRIPUAN

Oizko hegazkin istripuaren 40. urteurrenean, hondamendi hura gertutik bizi izan zutenen testigantzek tragediaren dimentsioa gogorarazi dute



Jose Antonio Izurieta 'Txikuri' Oizko tontorrean istripuan hildakoen omenez lore-sorta eramaten.

tseari erreskate lanetan laguntzen ibili ginen, zortzi-hamar bat egunean, gauzak egonkortu bazire ere.

Joaten zen inor kuriositateak bulztatuta?

Bai. Guardia Zibilak ez zuen uzten han inguruan ibiltzen,

"1982AN ORTUPELLAKO MARCELINO UGALDE ESKOLAN IZAN NINTZEN. GOGORRA IZAN ZEN"

baina jendea joan egiten zen. Hegazkin txatalak eta horrelakoak hartzen zituzten. Ez dakit, 'Granadako Alhambra' hegazkinaren oroigarri lez edo.

Zelakoa izan zen erreskatearen amaiera?

Gorpuak Garellanora eraman zituzten, identifikaziorako.

Suhiltzaile legez beste hondamendi batzuk ezagutu dituzu?

1982an Ortuellako Marcelino Ugalde eskolan izan nintzen. Gas-ihes bat gertatu zen eta 52 ume hil ziren. Etxean nengoen eta parketik deitu zidaten hara

joateko. Seat 1.500 bat neukan. Autoko antenan lazo bat ipini eta atoan joan nintzen. Han zeuden Bilboko, Ortuellako, Galdakaoko eta Gernikako suhiltzaileak, gureekin batera. Horma zatiak jausten ziren. Gorpuak ateratzen ibili ginen. Gogorra izan zen. Bestalde, 1983an uholdeak gertatu ziren eta han ere ibili ginen lanean.

Suhiltzailearen lana ez da erraza izango.

Ez da, ez. Sarritan etxera heldu eta buruari bueltak ematen nizkion.

Zelan gogoratzen duzu suhiltzaile sasoi hura?

Oso pozik ibili nintzen. Taxista nintzen Ezkurdiko geralekuan, beste lagun bategaz. Udaleko Land Rover bat pasatu zen, Diputazioak gidariak eta suhiltzaileak behar zituela esanez. Joseba, laguna, Ferreterako injinerearen txoferra zen eta joatera animatu nuen. Diputaziora joan eta instantziak bete genituen. 32 urte nituen eta adin horretatik gora ezin zen suhiltzaile posturako probarik egin. Lagunak 34 zituen. Geroago, deitu egin zidaten eta probak egin zizkiguten. Praktikak egiten hasi nintzen gero.

Ikusi duzu inoiz zeure burua arriskuan?

Durangoko Madalena denda batek su hartu zuen. Braulio Arriaga suhiltzailea beheko pisura jaitsi zen ekipoagaz, baina ez zen agertzen, eta bere bila jaitsi nintzen sokatik helduta. Deitu egin nion eta arnasa hartzeko botilagaz zegoen, baina zorabiatuta. Susto galanta pasatu nuen. Batzuek uste dute lan erraza dela, baina momentua heldetzen denean...

Ermuan bizi izandako beste pasarte bat ere badut gogoan. Pertsona batek bere buruaz beste egin gura zuen, balkoitik behe-ra salto eginda. Hirugarren pisu bat zen. Lona zabaldu genuen, badaezpada. Gora joan ginen eta hantxe zegoen, urduri. Lagun bati zigarroa eta sua eskatu nizkion. "Erre dezagun zigarro bana", esan nion. Eman nion, eta sua ematen nenbilela lankideek ebatu egin zuten. Hantxe amaitu zen arazoa. Horrelakoak ez dira ahazten. Argi dut suhiltzaileen lana sua amatatzea baino askoz ere gehiago dela.

Lau hamarkada eta tragedia gogoan

'Alhambra de Granada' hegazkinarena Euskal Herrian gertatu den mota horretako istripurik larriena izan da. 141 bidaiari eta 7 tripulatzailerik hil ziren ezbehar hartan



Oizko tontorretik Mallabia aldera begira, hegazkina jausi zen lekura.

Jone Guenetxea DURANGALDEA

Eguazten honetan 40 urte bete dira hegazkin batek Oiz mendian istripua izan zuenetik. Euskal Herrian izandako aire istripurik larriena izan zen, Durangaldeko herritarren memorian geratu dena. Istripuaren ondorioz, 148 lagun hil ziren. Inauteri sasoiko otsailaren 19 hartan, Iberia konpainiaren Boeing 727 bat, 'Alhambra de Granada' izenekoa, Madrildik Bilboko aireporturako bidea egiten zebilen. Kontrol dorrearen eta hegazkinaren arteko azken komunikazioa 09:22an izan zen. Handik gutxira, hegazkinak ETBren antena jo zuen.

Ondoren, Mallabia aldera jausi zen. Trabakutik gora joanda dagoen Mallabiko Munioguren baserrikoak izan ziren hondamendia ikusten lehenengoak. Zarata itzela entzunda, Juan Mari Urkiolak bertaratzea erabaki zuen. Topatu zuena tragedia deskribaezina izan zen. Ondoren, erreskate taldeek bere baserriaren atzeko landan ipini zuten operatiboa.

Oizko hegazkin istripua

- Boeing 727 hegazkinak 09:22an eman zuen azken komunikazioa. Handik gutxira, Oizko tontorreko ETBren antena jo zuen.
- 148 hildako izan ziren. 141 bidaiariak eta tripulazioko 7 kideak.
- Mallabiko Munioguren baserriaren ondoko landan ipini zuten erreskate lanen operatiboa.
- Sasoiko hedabide batzuek gorpuen argazki esplizituak publikatu zituzten.

Osteguna 27

EGUEN ZURIKO KOPLAK DURANGOKO KALEETATIK

09:30-12:00 Kurutziaiga ikastolako ikasleak.
10:00-12:30 Jesuitak ikastetxeko ikasleak.
11:00-12:00 San Antonio ikastetxeko ikasleak.
11:15-12:30 Nevers ikastetxeko ikasleak.

Larunbata 1

JOLAS LIBRERAKO GUNEA

11:00-14:00 eta 16:00-20:00 Landako Gunean.

JOLAS EGUNA SURRENDIEN TAILERRA TABIRA AUZO ELKARTEA
12:00 Tabira auzoan.

HAUR PARKEA

16:00-20:00 Landako Gunean.



SURRENDIEN ETA HARTZAREN KONPARTSAREN KALEJIRA TXISTULARI ETA BANDAREKIN

18:00 KRISKITIN DANTZA TALDEA, JAIZALE ETA TABIRA MUSIKA BANDA
IKUSKIZUN MUSIKALA: ERROMERIA
IRATZAR ERROMERIA TALDEA
20:00 Andra Mariko elizpean.

Igandea 2

JOLAS LIBRERAKO GUNEA

11:00-14:00 eta 16:00-20:00 Landako Gunean.

TAILERRA: MAKILLAJE ARTISTIKOA
11:30-14:00 Otamotzena parkean.
HERRIA AUZO ELKARTEA
Euria bada, Otamotzena auzogunea

HAUR PARKEA

16:00-20:00 Landako Gunean.

Astelehena 3

JOLAS LIBRERAKO GUNEA

11:00-14:00 eta 16:00-20:00 Landako Gunean.

HAUR PARKEA

16:00-20:00 Landako Gunean.




Durangoko Karnabalak 2025

KARNABALAK

Otsailaren 27tik martxoaren 4ra arte

durango
suretin, conliga

KARNABALAK
App berria
DKB!



Astelohenean egin zuten prentsaurrekoa.

Linfomadunentzat onura bila kirolean

Ikerketa proiektuak EDONOLA du izena eta honako hau aztertuko dute bertan: linfoma duten eta kimioterapia jasotzen duten pazienteengan ariketa fisikoa egiteak dakarren onura. Hori dela eta, pazienteek kirol saio gidatuak jasoko dituzte Durangon

Ekaitz Herrera DURANGO

Osakidetza eta Biobizkaia, Bioaraba eta Biopuzkoa ikerketa institutuek proiektu berritzaile bat hasiko dute Durangon, linfomak dituzten eta kimioterapia tratamendua jasotzen duten pazienteen bizi kalitatea hobetzeko helburuz. Proiektuak EDONOLA du izena eta gaixo horiengan ariketa fisikoa egiteak dakarren onura izango du ikergai. "Ariketa fisikoa egiteak minbizian duen eragina dezente ikertu da; adibidez, koloneko eta bularreko minbiziari loturiko kasuetan. Alabaina, linfomei dagokionez, ez daukagu ebidentzia askorik", azaldu zuen Izaskun Zeberio ikerlariak astelohenean egindako prentsaurrekoan.

Adituek hortxe egin gura dute azpimarra, hain zuzen ere. Kimioterapia tratamendua galera fisikoa dakarrela eta, ariketa fisikoa egitea lagungarri izan daitekeela frogatu gura dute. Baina "adierazle zientifikoak, zehatzak" behar dituzte horretarako: "Frogatuta dago kirola egiten duten pazienteek galera fisiko txikiagoa izaten dutela, baina ondorio hori subjektiboa izan da orain arte. Ikerketagaz neurri zehatzagoa lortu gura dugu", gaineratu zuen Zeberio.

Hori dela eta, kirol saio gidatuak eskainiko dizkiete linfomadun pazienteei, Durangoko kirol instalazioetan. Jarraipen hori kimioterapia hartu baino

lehenago, tratamendua hartu bitartean eta saiook amaitu ostean egingo dute. Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak azaldu zuenez, paziente horiek gela eta ordutegi zehatzak izango dituzte udalerriko kirol instalazioetan. Gainera, gaixoen immunitate sistema ahuldua izaten dutenez, talde txikitik, gela espezifikoko batean zein era indibidualizatuan jasoko dituzte kirol saioak. Osasun Sailak eta udalak hitzarmena sinatu dute horretarako.

Adierazle zehatzak bila

Sara Maldonado ikerlariak hogeitau urte baino gehiago daramatza pazienteekin kirol jarduerak sustatzen, eta berebizikotzat jo du

ikerketa: "Indar ariketak eta ariketa aerobikoak landuko ditugu, onurak igarri baititugu bi horiek konbinatuta eta jarduera bakoitzaren intentsitatea modulatu", azaldu zuen. "Gainbegiratutako ariketak izaten dira, profesional batek gidatutakoak, ikerketari ikuspegi kualitatiboa eta kuantitatiboa, biak, eskaintzen dietenak". Bestalde, Garazi Letamendia ikerlariak zehaztu zuen Durangoko ikerketa-lagina Galdakaoko ospitaleko Hematologia Sailak kudeatuko duela, Biobizkaia lagaz elkarlanean. Era berean, Kardiologia Saileko osasun profesionalak ere esku hartuko dutela zehaztu zuen.

Bizkaiari dagokionez, Durangon bakarrik ez, ikerketa Bilboko Harrobia Lanbide Heziketako ikastolan ere garatuko dute. Era berean, Donostiako erietxe onkológicoan eta Gasteizko Jarduera Fisikoa eta Osasuna Ikertzeko Zentroan ere landuko dute. Guztira, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 180 bat herritarrek esku hartuko dute programan.

Bizi kalitatea hobetzea helburu

Osasun Saileko ikerketa, berrikuntza eta ebaluazio sanitarioko Iñaki Gutierrez zuzendariak azaldu zuenez, herritarren bizi kalitatea hobetzeko adierazleak lortuko dira ikerketari eskerrak. "Kimioterapiaren eta jarduerak fisikoen sinergiak konbinatuta, ongizate fisikoan eta emozionalean eragitea da asmoa. Gainera, horrek guzti horrek osasun arre humanizatzea ere ahalbidetuko du. Ematen dugun urrats bakoitza onuragarria da", azaldu zuen Gutierrezek. Elkoroiribe "harro" agertu da udalerrian ikerketa proiektua hartzeaz. Udalerria kirolagaz eta ongizateagaz konprometituta dagoela gaineratu zuen.

Gobernu taldeak parte hartzea "eragozten" duela salatu dute

Durangoko gobernu taldeak oposizioko alderdien parte hartzea "eragozten" duela dio Herriaren Eskubideak. Talde independenteak azaldu duenez, gobernu taldeak botoa emateko aukera "eragotziko" die oposizioko alderdiei, udal barruan langileen balorazio mahaiak egiterakoan. Balorazio mahai horiek orain arte "udaleko alderdi politiko eta sindikatu guztiek" osatu izan dituztela azaldu du Herriaren Eskubideak. Mahaiak orain arte sindikatuetako bost ordezkariak eta alderdi politiko guztietako bost ordezkariak eratu dira. "EAJk eta PSE-EEk iragarri dute mahai hori sindikatuetako eta udaleko hiruna ordezkariak osatuko dutela", esan du Herriaren Eskubideak.

Durangoko Olleria kaleko espaloizati bat konponduko dute

Durangoko Udalak Olleria kaleko espaloizati bat konponduko du, autobusen markesinaren atzealdean eta Txibitena 9 zenbakiaren alboan dagoen eremuan. Jarduketa 12.377 euroko aurrekontuagaz esleitu dute, eta helburua oinezkoen irisgarritasuna eta segurtasuna hobetzea da.

Durangoko Udaletik jakinarazi dutenez, Olleria kaleko lanak otsailaren 24ko astean hasiko dituzte eta aste bi iraungo dute. Epe horretan, espaloizati altuera kenduko dute, eta, horrela, ur metaketak saihestu eta azalera uniforme eta seguruagoa lortuko dute oinezkoentzat.

Matxismoaren jarrera konplizeak alboratzeko deia

Gizon bik eraso egin zioten emakume bati asteburuan Durangon. Atxilotu egin zituzten, baina aske daude jada

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Barikutik zapaturako gauean emakume bati sexu eraso egitea leporatuta, Ertzaintzak 19 eta 45 urteko gizonetako bi atxilotu zituen Durangon. Durangoko Autodefentsa Feminista Asanbladak

deituta, elkarretaratzea egin zuten astelehen iluntzean, eta euren elkartasun osoa adierazi zioten eraso jasan zuen emakumeari.

"Egungo jarrera konplizeak alboratu, eta bizi garen jendarte antolaketa sexistari aurre egite-

ko behingoz benetako neurriak hartu daitezela exijitzen dugu. Gure bizi dago jokoan! Honeguz batera, autodefentsa feministarako deia egiten dugu. Bizitzaren aldeko apustu erradikala egiten dugu, eta badakigu antolakuntza eta autodefentsa izango direla gure tresnarik eraginkorrenak", azaldu zuten.

Bestalde, domekan, epailearen aurretik pasatu eta gero, epaileak atxilo biak aske utzi zituela jakinarazi zion Ertzaintzak ANBOTOri.



Asteloheneko elkarretaratzea.

Udalak "beste dimentsio bat" eman gura dio euskarari

Euskara teknikariaren figura polemika iturri bihurtu da Durangoko Udalean. "Arloa berrantolatzeak ez dakar euskara teknikariaren lanpostua kentzea, egungo beharriari hobeto erantzuteko eredu bihurtzea baino", esan du udalak

E.H. DURANGO

Joan zen astean, Durangoko gobernu taldeak euskara teknikariaren figura ezabatu gura duela salatu zuen EH Bilduk. EH Bilduren kritiken ondoren, Durangoko Udalak argibide gehiago eman du euskara teknikariaren figura dela eta: "Arloa berrantolatzeak ez dakar euskara teknikariaren lanpostua ezabatzea, egungo beharriari hobeto erantzuteko eredu bihurtzea baino. Hain zuzen ere, herrigintzako koordinatzaile teknikari berriak euskararen eta hezkuntzaren gaineko erantzukizun zuzena hartuko du, eta horri eskerrak ikuspegi estrategiko integralagoagaz landuko da hizkuntza. Oraindino gehiago: kontua ez da euskararen dinamizatzailerik lanpostua kentzea, hura garatzea eta udal organigramako kategoriarik gorenara igotzea baino. Zuzendaritza taldean sartuta, hezkuntza, kultura, kirola eta gazteria arloekin integrazio handiagoa lortuko dugu".



Durangoko udaletxea.

Izan ere, udalaren esanetan, euskara "eremu isolatu modura tratatu" izan da orain arte, eta, aurrerantzean, "leku nagusia" emango dio hizkuntzari. "Horregaitik, maila gorenera eramango dugu [euskara], gure politika pu-

bliken barruan elementu estruktural eta transbertsala bihurtuz", azaldu du Paule Sanchez zinegotziak. Alde horretatik, lankidetzaz sendotu gura dute Udala Euskaltegiagaz: "Ziur gaude berrantolatzea hau ez dela euskararen sustapenean atzerapausoa, euskararen garapena modu eraginkor eta estrukturalagoan bermatuko duen bidea baino. Euskara lehentasuna da gobernu honentzat, eta ekin-tzekin erakusten gabilta", gaineratu du Sanchezek.

Udalak berretsi egin du euskaragazko konpromisoa, eta arlo horretara bideratutako aurrekontua ipini du horren adibide lez. Izan ere, 2021etik 2025era Udala Euskaltegiari eta euskara arlori bideratutako inbertsio osoa % 13 igo da. 2021ean 699.773 euro bideratu zituen Udala Euskaltegiari, eta 327.485 euro euskara arlori. Aurtengoa, Euskaltegiak 800.404 euroko zuzkidura izango du, eta hizkuntza sustatzeko sailak 364.727 eurokoa.



Dendak Bai elkarteko kideak.

Dendak Bai Fest otsailaren 21etik 23ra, Landako Gunean

Dendak Baira atxikitako guneetan erosketak egiten dituzten artean 5 Durango Oparitu txartel zozkatuko dituzte

E.H. DURANGO

Otsailaren 21etik 23ra arte Dendak Bai Fest jaialdia egingo dute Landako Gunean. Saltokien atalean, haurren eta helduen moda, kirol arropa, lentzeria, lurrin denda, ile-apaindegia, liburu denda eta publizitate zerbitzuak egingo dira. Bestalde, gune gastroan, gildak, tortillak, gozokiak eta kafea eskainiko dituzte.

Azokari behar duen gatzeta eta piperra eskaintzeko, askotariko ekitaldiak programatu dituzte: barikuan, otsailak 21, Akustikovers bikoteak emanaldia egingo

du. Horrez gainera, zapatuan, bisitariak beste hainbat hitzordu interesgarriak gozatu ahal izango dute; 11:00etan umeentzako sukaldaritza tailerra egingo dute, Gozatu gozotegiaren eskutik; 12:30ean, Kids & Us akademiako kideek ipuin kontaketa egingo dute ingelesez; 17:00etan, Sancho Tena lurrin dendak usaimen-bingo dibertigarria egingo du; eta, azkenik, DJ MiniAnn durangarrak giroko du azoka.

Aipaturikoez gainera, Dendak Baik eta udalak jolas libreko gunea erabilgarri egongo dela gogoratu dute.

Osasungintza euskalduntzearen garrantzia berbagai

E.H. DURANGO

Euskal Herrian Euskarazek berbaldi ziklo bat antolatu du osasungintza euskalduntzearen garrantzia mahaigaineratzeko. Berbaldietariko bat Durangon egingo dute, otsailaren 27an, 18:30ean, Ibaizabal ikastolan. Hizlariak honako hauek izango dira: Intza Gurrutxaga EHEko batzordekidea, Unai Larrinaga Aintzat mugimenduko kidea eta Jon Zarate EHUko irakasle eta ikerlaria. "Kalitatezko zerbitzua bermatze bidean, euskara ardatzera ekartzeko ezinbestekoa da", aldarrikatu zuen EHEk. Hori dela eta, "berehalako neurriak" hartzea eta "euskaldunon eskubideak errespetatzera" deitu dituzte instituzioak.



Guatemalako bisitariak Durangoko udal ordezkariekin. DURANGOKO UDALA

Guatemalako ordezkariaren bisita

Durangoko Udalak Guatemalako Moloj erakundeko hiru ordezkari hartu ditu Medicusmundi Bizkaia gaz duen lankidetzaz hitzarmenaren barruan. Bisita hau emakume maiek indarkeria obstrektikoa osasun publikoaren arazo lez politikoki gainditzen proiektuaren testuinguruan kokatzen da.

Jolas Libreko Gunearen egutegia zabalduko dute

Guraso talde batek egindako eskariari erantzunez, Durangoko Udalak egutegia handitzea erabaki du

E.H. DURANGO

Guraso talde batek egutegia zabalteko eskaria egin zien Durangoko ordezkari politikoei, orain aste batzuk. Eskari hari bidea zabaldu, eta udalak Landako Guneko jolastokiko egutegia handitzea erabaki du.

Hasieran, zerbitzua urtarilaren 18tik otsailaren 9ra eta martxoaren 14tik apirilaren 27ra arte eskaintzea zegoen aurreikusita. Hemendik aurrera, egutegi hau izango dute: otsailaren 21etik martxoaren 4ra (1. modulua), martxoaren 5etik

12ra (3. modulua) eta martxoaren 13tik aurrera (2. modulua).

Durangoko Udalak herritarren inplikazioa eskertu du, eta, bereziki, Durangoko Gurasoak elkartearena, "udal zerbitzuak hobetzeko egiten dabiltzan lanagaitik". Era berean, udalak esan du maiatzera begira zerbitzua hobetzeko lanean dabilela, baina aurreratu du Landako Gunearen okupazioak "zaildu" egiten duela egun horietan zerbitzua eskaintzea. Herriaren Eskubidea alderdiak "pozik" jaso du albistea.

Berrizko Hiltegixen lapurretan sartu dira

Berrizko Hiltegixe gaztetxearen 26. urteurren ospakizunaren aurreko egunetan, gunera lapurretan sartu direla salatu dute; hala ere, zapatarako, hilak 22, egun osoko egitaraua antolatu dute; "Ez dugu erasorik onartuko, aurrean izango gaituzte", esan dute

A. M. BERRIZ

Berrizko Hiltegixe gaztetxeak beste lapurreta bat salatu dute aste honetan. Sare sozialen bitartez azaldutakoaren arabera, soinu mahaia, gailu elektronikoak eta metalezko barrak ostu dituzte. Horrez gainera, "hiru kable" moztu dituztela nabarmendu dute, gaztetxearen jardunean eragingo duelakoan. Baina asteburuan egitekoak diren urteurren jaiari eutsiko diotela azpimarratu dute. "Horrelako erasoek ondorio ekonomiko eta psikologikoak ekartzen dituzte, eta bertan garatzen diren proiektuak aurrera eramatea zailtzen dute", salatu dute gaztetxetik. "Baina inoiz baino indartsuago gaude, egitaraua aurrera eramateko prest. Ez dugu inolako erasorik onartuko, aurrean izanongo gaituzte", gehitu dute.

Durungaldean bertan beste gune autogestionatu batzuetara ere sartu direla salatu dute, bide batez, eta Berrizkoa ez dela "kasu isolatu bat" izan. Berrizko gazte-



Berrizko Hiltegixe gaztetxeko kideek bideo bat grabatu dute egoera salatzeko.

txera hainbat bider saiatu dira azken urteetan.

Urteurrenak Durungaldean

Berrizko Hiltegixe ez da data hauetan urteurren festa ospatuko duen gaztetxe bakarria es-

kualdean. Besteak beste, Erorrioko eta Zaldibarko gaztetxeek euren urteurren jaiak iragarri dituzte martxoaren 1erako eta 8rako, hurrenez hurren. Egun osoko egitarauak prestatu dituzte bietan.



Ikastaroei buruzko informazio gehiago Berrizko Udalaren webgunean dago.

Berrizko jabeakuntza tailerretan izena emateko epea, zabalik

Berrizko Udaleko Berdintasun zerbitzuen ikastaro bietarako izen ematea otsailaren 28ra arte dago zabalik

A. M. BERRIZ

Berrizko Udalaren Berdintasun zerbitzuak emakumei zuzenduriko jabetza ikastaroekin jarraitzen du. *Mindfulness* eta adimen emozionala batzen dituen *Emakume jakintsuak* eta *Alfabetatze eta Ahalduntze* ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago dagoeneko; otsailaren 28ra arte dago epea zabalik gura duenak izena eman dezan. Lehenengo ahalduntze ikastaroan, nobedade legez, 50 urtetik gorako pertsonen ere eman dezakete izena; bigarrena emakume migratzailei zuzenduriko ikastaroaren

beste edizio bat da; astelehen eta eguaztenetan egiten dute ikastaroa, Kultur Etxean, 10:00etatik 12:00etara. Ikastaroei buruzko informazio gehiago Berrizko Udalaren webgunean dago.

Izen ematea

Ikastaro biak doakoak dira eta hile amaierara arte dago epea bertan izena emateko. Horretarako, *berdintasuna@berriz.eus* helbide elektronikora idatzi daiteke, 946 824 525 telefono zenbakira deitu, edo 603 837 471 telefono zenbakira whatsapp idatzi.

Marixelarre sariagaz sarituko dute Alaiak koralaren ibilbidea

Martxoaren 8an Zelaietan egingo duten ekitaldian sarituko dute Alaiak koralak, 40 urteko ibilbideagaitik



Alaiak koralak.

A. M. ZORNOTZA

Zornotzako Udalak Alaiak koralari emango dio aurtengo Marixelarre saria, ia lau hamarkadako jardunaren aitortza lez. Marixelarre saria martxoaren 8an egingo duten ekitaldian jasoko dute, Emakume Nekazari, Abeltzain eta Artisauen Azokaren barruan. "Orain ia lau hamarkada sortu zen, emakume talde batek abesbatza bat bultzatzea hain ohikoa ez zen garai batean, hain zuzen ere, eta horrek balio erantsia ematen dio koralaren ibilbideari, emakume talde honek urrats hori eman eta udalerrian sendotzea lortu baitzuen", azaldu du udalak. Korallak herriko ekitaldi askotan parte hartu izan du urte hauetan zehar: 2022tik hona, urtero banatzen dira Marixelarre sariak, genero berdintasunaren alde lan egiten dutenen ekarpena saritzeko.

Mahai-ingurua egingo dute Elorrioko ekoizleekin

Elorrioko Anbotopeko elkarteak bertako elikadura osasuntsua sustatzeko zikloa antolatu du

A. M. ELORRIO

Tokian tokiko elikadura proiektuak ezagutarazteko, eta bertako ekoizleei berba emateko asmoagaz, Elorrioko Anbotopeko elkarteak zikloa antolatu du Urkiola Landa garapenaren eta Elorrioko Udalaren laguntzagaz. Lehenengo berbaldia eguaztenean egin zuten eta bigarrena datorren eguaztenean egingo dute, hilak 26. Jon Bastante berritar zornotzarrak ekoizketa ekologikoagaz hasteko lehenengo urratsak zelan eman azalduko du. "Askok modu tradizio-

lean eta dakiten moduan landatzen dutela irizita, modu ekologikoa zertan datzan aletuko du, apurka mundu horretara hurbiltzeko gonbidapena eginda", azaldu du udalak. Berbaldia 18:30ean izango da, Iturri kultur etxean. Zikloa borobiltzeko, Elorrioko ekoizleek mahai-ingurua egingo dute martxoaren 5ean. Saio hori ere Iturri kultur etxean egingo dute, 18:30ean. "Gonbidatu ditugun ekoizleen eta entzuleen artean iritziak partekatzen ahaleginduko gara", azaldu dute antolatzaileek.

OSASUN GIDA

Podologia
PSE: 214/06



Adinara Urreta Jainaga

OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA
IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA
NEURRIIRA EGINDAKO PLANTILAK

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

Odontologia
PSE: 26/22



viteri
HORTZ-KLINIKA
Konfiantzazko hortz klinika Durangoan

DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA,
HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA
ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR
DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.

Ordulegia:
Astelohenetik ostiralera: 10:00 – 14:00 | 16:00 – 20:00
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia
www.clinicadentalviteri.com

Odontologia
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarría

ODONTOLOGIA OROKORRA -
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA -
ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA
IKUSEZINA - ODONTOPIEDIATRIA - PADI -
HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO
ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea -
48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

Fisioterapia
PSE: 119/13



ZAINDUZ
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu.
Solo pertsonalizatuak dira,
talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

Fisioterapia
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Proktologia
PSE: 16/22



próktós.clinic

Uzki eta zoru-pelbikoko
patologien tratamendua

Mikeldi Kalea, 13, 48200
Durango, Bizkaia
(MAM Zentroa)
674 322 360 / 747 474 699
info@proktos.clinic

Naturopatia eta Homeopatia



Aurora Julià

HOMEOPATIA • NATUROPATIA
OSASUN INTEGRALA

Umeak - Helduak - Nagusiak

Ordua hartzeko:
946 204 218

Txanporta Plaza, behea - Abadiño
www.aurorahomeopata.eus



Psikologia



gure
Psikologia

Helduak-nerabeak-haurrak

- Zure buruan konfiantza sendotzeko
- Estresa kudeatzeko
- Zure harremanak hobetzeko

ONLINE ETA AURREZ-AURRE

623 173 181 - 613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

Psikologia



gure
Hezkuntza zailtasunak

Hezkuntza zailtasunen
diagnostikoa eta esku-hartzea,
diskalkulian adituak.

613 038 933
Andra Mari, 16 1D Durango

Optometria
PSE: 162/13



NAIA ZABALA
AUZMENDI
1.1507 kol. 2k.

keinu
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEKUIAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099
www.keinuoptometriazentroa.com

Errekondo jatetxea berriro zabalik, bihartik aurrera

Ostalaritzaren munduan esperientzia zabala duten hiru lagunek hartu dute Mañariko jatetxearen ardura; parrillan eta momentuan egindako platerak izango dira euren espezialitatea; asteko bost egunetan zabalduko dute: egunetik astelehenera

Joseba Derteano MAÑARIA

Urtebete inguruan itxita egon eta gero, Mañariko Errekondo jatetxeak berriro zabalduko ditu ateak, zapatu honetan. Asteko bost egunetan zabalduko dute: egunetik astelehenera. Horrela, Mañarian taberna bi egongo dira zabalik aurrerantz: Errekondo eta Herriko taberna. Gainera, hemendik aurrera herrian asteko egun guztietan egongo da zabalik ostalaritza establezimendu bat.

Udalak egindako lehiaketaren bitartez, ostalaritzaren munduan esperientzia handia duten hiru lagunek hartu dute Errekondoren ardura. "Sukaldaritza,



Errekondo jatetxea.

jatetxea, taberna, horren inguruan sortzen den giroa... ostalaritza mundua asko gustatzen zaigu", esan du Liher Gonzalez durangarrak Errekondoren ardura hartzeko arrazoiaren inguruan. Gonzalezek esperientzia zabala du ostalaritzan; besteak beste, Ondarroako Arrigorri ostatu-jatetxearen arduraduna izandakoa da. Beste kide bat lau izarretako hotel bateko chef-exekutiboa da.

Beste arrazoi bat ere badago. Hirurek aholkularitza gastronomikoari loturiko negozio bat dute elkarregaz. Negozioa hutsetik hasten laguntzen diete ostalariei, edo dagoeneko martxan daudenak hobetzen. Orain, eurek hartu dute negozio baten ardura. "Gure burua proban ipintzeko modua da, horrelako erronka baten aurrean talde lez zelan funtzionatzen dugun ikusteko", esan du Gonzalezek. Eguneroko lanean ikasten dutena baliagarria izango zaie euren sistema fintzeko.

Parrillan, momentuan egina

Errekondoren eskaintzan, parrillan amaitutako platerak dira

apustu nagusia. Espezialitate horretan nabarmendu gura dute. Gonzalezek zehaztu du ez dela erretegi bat izango, ez behintzat erretegia ulertzen den zentzuan. Hamabost erreferentzia dituen karta bat izango dute, denak txingarretan amaituta: burduntzia, muskuiluak, oilasko erdiak, barazkiak... Sukaldea egun osoan egongo da zabalik; hau da, kartako platerak eginberriak izango dira beti. Eskaintza hau datorren astetik aurrera egongo da funtzionamenduan, ehuneko ehunean. Parrillaz gainera, ohiko pintxoak (tortilla, gildak...) eta eskaintza begetariano ere izango dituzte.

Sukalderako lehengaiak bertoko barazki eta okela ekoizleekin hornitzen ahaleginduko dira. Esaterako, datozen asteetako burduntzia Euskal Herriko azpigorri arrazako ahuntz okelagaz egin gura dute. "Bertoko kalitatezko produktuak prezioa erakargarrian eskaini gura ditugu", gaineratu du Gonzalezek.

Horrez gainera, urtean zehar ekintza kulturalak antolatzeke asmoa dutela adierazi dute.

Tirolina berriagaz, prest dago Santo Tomas parkea

Izurtzako Udalak hainbat hobekuntza egin du Santo Tomas parkean. Besteak beste, umeentzako tirolina bat ipini dute, herri batzar batean irtendako proposamenari kasu eginez. Bermeosolo enpresak egin ditu lanak eta aste bi iraun dute



Santo Tomas parkeko tirolina berria.

J.D. IZURTZA

Izurtzako Udalak hainbat hobekuntza egin du Santo Tomas parkean. Bermeosolo enpresak

egin ditu lanak, eta aste bi iraun dute. Zurezko egitura duen umeentzako tirolina bat ipini dutela da aldaketarik deiga-

rriena. Horrela, herri batzar batean irtendako eskaerari erantzun dio udalak. Jolasgune txintxaun guztien oinarrietan harea gehiago bota dute, bertan jolasten diren umeen babeserako.

Mahai eta jesarleku berriak

Beste aldaketa batzuk ere egin dituzte: parkeko mahai eta jesarleku zaharkituak kendu eta berriak ipini dituzte. Eta parkea eta jolasgunea inguratzen dituen bidexkan ere harea bota dute. Urteen poderioz, bidexka hori harearik barik zegoen. Proiektu osoak 40.300 euroko aurrekontua izan du.

Maren Basterretxearen 'Igaro' ikusteko aukera, Amillen

Ametsetan eta desioetan arakatzen duen antzezlanaren antzezlana taularatuko dute gaur, 20:30ean. Sarrera doakoa da

J.D. ATXONDO

Maren Basterretxearen *Igaro* obra ikusteko aukera dago gaur, 20:30ean, Arrazolako Amillena bentan. Helduei zuzenduriko antzezlana da eta ametsetan eta desioetan arakatzen du. Honela dio obraren sinopsiak: "Ez dago erlojua gelditzerik, oraina geroratzerik. Iraganean ginenetik, minean, zaurian, ilusio zapuztuan bizi da bizia. Sokak moztu eta agurtu behar ditugu, egunen baten aske dantza gaitzen. Iraganari, etorkizunari eta orainari buruz hausnartzeko".

Plazerkekeriak zikloa

Gaurko ekintza Amillenako kideek antolaturiko Plazerkekeriak zikloaren barrukoa da. Ekimenaren bitartez, emakume eta identitate disidentedun sortzaileei euren sorkuntza aurkezteko agertokia eskaintzen diete Ami-



Amillena izango da antzezlana.

llenari. Horregaz batera, landa eremuko herri txikietan bizi direnei kultur eskaintza handitzea eta ohiko kultur eskaintza ereduari alternatiba bat eskaintzea gura dute, horrela bestelako erreferente batzuk ezagutarazita.



BIDALI ZURE
ARGAZKIA
688 635 041
ZENBAKIRA EDO
WEBGUTNERA

INAUTTE RIETAKO

ARGAZKI LEHIAKETA

SARIA
EUSKAL
PRODUKTUEKIN
OSATUTAKO
OTZARA BAT

ARGAZKIAK
BIDAITZEKO
AZKEN
EGUNA
MARTXOAK 6

anboto
kide



Anbotokideen
txokoa

OTSAILEKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz.
Zornotza.



Errigoraren eskutik
Euskal Herriko produktuen otzara.



Goazen kontzerturako sarrerak.
Zornotza Aretoa. Martxoak 1.

Okm:
batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Julen Diezek irabazi du Burduntziko Bildots Txapelketa

Lehiaketan omenaldia egin zioten Lorenzo Ciarsolori.
Abadiñarrak 30 edizio baino gehiagotan parte hartu du



Irabazleen familia argazkia.

M.Z. ABADIÑO

Joan zen zapatuan XXXV. Burduntziko Bildots Txapelketa jokatu zen Abadiñon. Eguraldi paregabea lagun, jendetza batu zen bertan. Aurtengo edizioko txapelketa aprobetxatuta, Lorenzo Ciarsolo abadiñarrari omenaldia egin zioten denek. Ciarsolok 30 urte baino gehiago daramatza Burduntziko Bildots Txapelketan parte hartzen, eta txapelketa horretako makina bat garaikur du etxean.

Bestalde, Zelaietako Bildots Txapelketara bertaratu zirenek jaki berezi bat dastatzeko aukera izan zuten, Joan Pera Ferran katalanak Calçots-ak egin zituen eta. Ferranentzat ohitura bihurtu da Abadiñora etortzea. Sei-garrenez etorri da bildots txapelketara.

URAgaz sinaturiko hitzarmena osorik betetzeko eskaria



Abadiñoko EAJko kideak.

M.Z. ABADIÑO

EAJk ohar bidez azaldu duenez, URAk jarduketara batzuk gauzatu ditu datozen hiletan, 2023an EAJ gobernuan zegoela sinaturiko akordioaren barrukoak. "Hitzarmena osorik gauzatea eskatzen dugu", esan dute. Bestalde, egungo alkatearen eta EH Bilduren jarrera kritikatu dute. "Oposizioan zeudenean hitzarmenaren kontra egin zuten, eta orain paparra atera eta ontzat jotzen dituzte URAk iragarritako ekintzak", esan dute.

Dagoeneko eman daiteke izena frontenis txapelketa mistoan

M.Z. MALLABIA

Martxoaren 9an frontenis txapelketa mistoa jokatu da Mallabiko udal frontoian. Antolatzailerik azaldu dutenez, eskualdekako txapelketa 09:00etan jokatu da (Debarrena, Debagoiena, Lea Artibai eta Durangaldea), eta txapelketa orokorra 11:00etan.

Izen ematea martxan da dagoeneko eta txapelketan apuntatu gura duenak martxoaren 5era arte du epea horretarako, 669 028 718 telefono zenbakira deituta. Gehienez 16 bikotek parte hartu dezakete. Inskripzioak 24 euro balio du bikoteko.

Zahartze aktiboari buruzko berbaldi zikloa Abadiñon

Lehenengo saioa aste honetan egin dute. Hurrengo martxoaren 20an izango da, Txanporta Kultur Etxean

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak, elkarlanean, berbaldi zikloa antolatu du herritarrentzat. Udaletik jakinarazi dutenez, hainbat gai jorratuko dute zikloan zehar, hala nola gura bako bakardadea eta narriadura kognitiboa, zaintzaileen lana, sexualitatearen helduarroa eta tratatuaren prebentzioa adineko pertsonengan. "Prestakuntza eta informazio guneak eskaini gura ditugu, zahartzearen erronkei tresna eta laguntza gehiagorik aurre egiten laguntzeko", azaldu du Edurne Maguregi zinegotziak.



Edurne Maguregi zinegotzia.

Garaitarrak nagusi etxeko duatloian

Open mailako garaipen guztiak eskualdean geratu dira. Kategoria mistoan, Garai Triatloi Taldeko kideek irabazi zuten, gizonezkoetan Indarparkeko mutilak nagusitu ziren, eta emakumezkoetan Mugarra Triatloi Taldekoak izan ziren garaileak

Maialen Zuazubiskar GARAI

Aurreko domekan, IV. Garaiko erreleboen taldekako duatloia jokatu zen. Eguraldia lagun, jendetza batu zen bertan.

Open mailan, errelebo mistoen kategorian, eskualdeko talde biren arteko lehia egon zen: Garaiko Triatloi Taldea eta Indarpak. Etxeko berotasunagaz, garaitarrek lasterketaren burua hartu zuten, hasieratik, eta lehenengoak izan ziren helmugako marra igarotzen. Maila federatuan, Galdakaoko Mozoilo taldeak irabazi zuen.

Gizonezkoen proban, federatu mailan, lehia estua egon zen Garraitz Taldeko duatleten eta Peñota Dental Alusigma taldekoen artean lasterketa erdiraino. Baina bigarren talde horretako Borja Martinek bizikletako sektorean izandako erorikoak proba baldintzatu zuen. Martinek lasterketa utzi behar izan zuen eta Peñota Dental Alusigma



Garai Triatloi Taldeko kideak, dominekin. OIHANE SANCHEZ

taldekoek ezin izan zuten lasterketa amaitu. Azkenean, Garraitz taldeko mutilek irabazi zuten proba. Open mailan, Indarpak taldeko kideak izan ziren nagusi.

Peñotako gizonezkoek txanponaren aurkia ezagutu bazuten ere,

talde horretako emakumezkoek, faborito nagusiek, ifrentzua ezagutu zuten. Nagusitasunez irabazi zuten, Mugarra Triatloi Taldeko durangarren aurretik. Open mailan, Mugarrako duatletak izan ziren garaileak.

Euskararen erabileran eragiteko AROA plana landu dute Otxandion

Udalak, AIRATU euskalgintza taldeak, UEMAK eta herritarrek parte hartu dute AROA planaren diseinuan

Aitziber Basauri OTXANDIO

Otxandion euskaraz bizitzea eta etorkizuneko erronkei erantzutea helburu lez hartuta, AROA plana diseinatu dute herrian. Udalak, AIRATU euskalgintza taldeak, Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMA) eta herritarrek parte hartu dute euskararen erabileran eragin gura duen planaren diseinuan. Udalak UEMAK landu duen dokumentua onartuko du hurrengo udalbatzarrean. Aurretik, lan saioetan parte hartu duten herritarrekin partekatuko dute.

Kirol esparruan eta merkataritza eta ostalaritzan atzeman dituzte hutsunerik handienak, egindako lan saioetan. Era berean, kontzientziazioan lan egin behar dela ondorioztatu dute, Maider Arejolaleiba zinegotziaren berbetan: "Sare sozialek eta telebistak duten eragina nabarmena da eta prestigioaren erreferentzien falta dagoela ikusi izan dugu". Hainbat lan arlo zehaztu dute datozen urteetan indarrean egongo den AROA planean: gobernantza; jarrera eta motibazioa; ezagutza eta gaitasuna; erabile-

ra eta elkarreragitea; eta komunikazioa, besteak beste. Planak hainbat ekintza zehatz batzen du arlo bakoitzean eragiteko.

Ezagutza eta erabilera datuak

Azaro amaieran, euskararen ezagutzari eta erabilerari buruz herritarrek duten iritzia jaso zuten, inkesta baten bitartez. Eta galdeketa horren emaitzak partekatuko, lehenengo lansaiotatik antolatu zuten abendurako; euskararen ezagutza eta erabilera datuak ere partekatu zituzten bertan.

Hori guzti hori kontuan hartuta, beste saio bi egin zituzten lan ildo nagusiak zehazteko. EUSTATen esanetan, herritarren % 74,2 euskaldunak izan ziren 2021ean; ia euskaldunak % 10,2, eta euskaraz ez dakitenak % 15,6. Kale erabilera % 53,1ekoa zen, Arejolaleibak azaldu duenez.

Azpitarte alkatea Osasun Sailagaz batu da Gasteizen

Herritarren eskariak aintzat hartuta, Zaldibarrek "osasun zentro duina" behar duela helarazi die alkateak

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Eneritz Azpitarte Zaldibarko alkateak Osasun Sailera eraman du herritarren kezketariko bat: "Zaldibarren osasun zentro duin bat behar dugu. Hori dela eta, Osasun Sailagaz hartu-emanetan hasi gara, gaia lantzeko eta aurrera begirako aukera posibleak aztertzeko", azaldu du. Bilera "giro onean" egin zela azpimarratu du alkateak, eta eskerrak eman dizkie Osasun Saileko kideei "zaldibartarren kezka eta eskariak entzuteko izandako prestutasunagaitik".



Azpitarte, Osakidetzaaren egoitzan. Z.U.

Errime euskara elkarte herriari aurkeztuko zaio, gaur

Aitziber Basauri IURRETA

Turretan jaio berri den Errime euskara elkarte jendartera aurkeztuko dute gaur. Dantzari plazan egingo dute ekitaldia, 19:30ean. Herriko hizkuntza politiketan eragiteko eta euskararen kale erabilera bultzatzeko helburuagaz sortu dute Errime. Izan ere, euskararen erabilera datuak ikusita, "lan handia" dago egiteko, "herri-

ko instituzio eta elkarteetatik hasi eta norbanako ororenganaino", nabarmendu dutenez. Aurrera begira egingo dituzten ekintzak iragarriko dituzte. Gurien Bai elkarteak bidearen zati bat egin zuen. Bada, hurrengo pausoetarako "indar egitera" dator Errime. "Turreta herri euskalduna izan da beti. Horrela ezagutu, bizi eta sentitu izan dugu beti iurretarrak, baina hori ez litzateke horrela izango herritar asko eta askoren lanagaitik izan ez balitz", azaldu zuten elkarte sortzerakoan.



TXITXIBURDUNTZIA IURRETAN

Txitxiburduntzia egiteko ordua

Dela txitxiburduntzi, dela basokoipetsu, domeka honetan makina bat herritar joango da basora makila hartuta eta txerriak zein bestelako elikagaiak surtan erre eta jatera. Durangaldeko herri askotan antolatu dituzte hitzorduak. Astekari honetako 19. orrialdean, herriko antolatutako irteerak kontsultatu daitezke.



Boluntario ugari aritu zen lanean jaialdian.



La Txama taldeak ederto baten zirikatatu zituen jaialdira joandakoak.

40 Minutu Rock: elkartasun taupadak musikaren erritmoan

Joan zen zapatuan milaka festazale batu ziren Landako Gunean musikaz gozatu eta euskal presoekin zein iheslarien eskubideak aldarrikatzeko. Datorren urtekoa jaialdiaren hamargarren edizioa izango da. (Argazkiak: Peio Zamalloa eta Oier Yaniz)

M.Z. / E. H. DURANGO

Eszenatokietan, dozena bat musika taldetik gora; behean, jendetza, milaka jaizale. Joan zen zapatuan milaka lagun batu zituzten Landako Gunean, 40 Minutu Rock elkartasun jaialdiari babesa eman eta egitarauaz gozatzeko. Durangora bertaratu zirenek egun osoko musika eskaintza zabalaz gozatzeko aukera izan zuten. Antolakuntzako kideak ere pozarren azaldu ziren egunak emandakoagaz. Jaialdia "normaltasunez" gauzatu zen, "jarrera desegokiren bat edo beste" kenduta.

Bestalde, euskal presoekin eta iheslarien eskubideen aldeko jaialdia izanik, antolatzaileek egoera politikoari buruzko berbak ere izan dituzte. "Helburu nagusiak bete barik" daudela azaldu zuten: "Bidea geratzen da aurretik, eta herriak aurretik duen bide hori zelan, nogaz eta noran-

tza egingo dugun aldarrikatu dugu", adierazi dute. Era berean, milaka lagunek euren aldarriak batu zituzten jaialdiko ekitaldian, "euskal preso, iheslari eta deportatuak behingoz etxean" egotea eskatzeko.

"JARRERA DESEGOKIREN BAT" KENDUTA, JAIALDIA "NORMALTASUNEZ" EGIN ZUTEN

DATORREN URTERA BEGIRA ZEOZER BEREZIA PRESTATZEKO ASMOA DUTE ESKU ARTEAN

Jaialdia Sukena talde oñatiarrak zabaldu zuen, bere kanta gozokekin. Handik gutxira taularatu zen Maruxak taldea; identitate zein sexualitate aniztasuna aldarrikatu zituzten abestirik abesti. Orduak aurrera egin ahala, lehengo eta gaur egungo erreferente musikalak nagusitu ziren oholtzetan: Nakar, Anestesia, Kaleko Urdangak, Süne eta Dupla. Azken talde horrek ikus-entzule guztiak dantzarazi zituen.

Datorren urterari begira

Aurtengoak amaituta, jaialdiko antolatzaileak 2026ko edizioari begira daude jada. Hamargarren edizioa izango da. Horregaitik, zeeper berezia prestatzeko asmoa dute esku artean. Euskal preso eta iheslarien eskubideei buruz, honako hau esan dute: "Herriak eguneroko lanetik eta borrokatik egin behar du bidea".



Eskumuturrekoen banaketa.



Chuleria Joder taldea egurrean.



Indarrak berritzeko adina ogitarteko zerbitzatu zuten.



Fitoskins talde elorriarrak punk eta oi! doinuak eraman zituen oholtzara.



Pinpilinpussies talde durangarrak energia zabaldu zuen Landako Gunean.



Batek baino gehiagok parranda egiteko baliatu zuen jaialdia.



Dupla talde arabarrak zoratu beharrean ipini zituen festazaleak, ordu txikitan.



Añube taldearen hitzak areto osoan zehar entzun ziren.



Süneek bere proposamen musikala aurkeztu zuen taula gainean.

Zaldua MT, haria ez da eten

2024ko abenduaren 17an, Zaldua Mendi Taldeak bere jarduna utzi-ko zuela iragarri zuen. Aste batzuk geroago, Zaldua Mendi Taldean errelebo aldaketa egon eta taldeak bere jarduerari eutsiko diola jakinarazi dute. Mendi taldearen lehenengo ekintza otsailaren 23an izango da, 10:00etan; Arietzura joango dira eta Goierrin txitxi-burduntzia egingo dute.



DURANGALDEA ASTEON

Domekan Durango Kantari udaletxeko plazan

DURANGO Durango Kantari ekimenaren edizio berria domeka honetan izango da, 12:00etan, udaletxeko plazan. Aurten, NKT Balmaseda taldeak parte hartuko du ekitaldian.

Bestalde, udaletik jakinarazi dute abestera eta parte hartzera animatzen direnek www.durango.eus webgunean deskargatu dezaketela *Durango Kantari* kantutegia.



Sagastako bidea udaberriaren konponduko dute

ABADIÑO Abadiñoko Udalak prentsa ohar bidez azaldu duenez, lehiaketa publikora atera du Sagastako bidea konpontzeko proiektua. Udaletik azaldu dutenez, alde batetik errepidea konponduko dute. Eta, bestetik, euri urek sor zitzaizkaten luiziak saihesteko helburuagaz, urak batzen dituzten arekak konpondu behar dituzte lursail batzuetan, urak errekara bideratzeko.



Kiroletik Bagoaz Euskaraz sariak Durangon

DURANGO Otsailaren 13an Kiroletik Bagoaz Euskaraz sariak banatu zituzten San Agustin Kulturgunean. Eusko Jaurlaritzak banatzen ditu sariak, kirol arloan euskararen erabilera bultzatzeko duten klub eta pertsoneri. Klub eta kirolari hauek saritu dituzte: Badaiotz sokatira saila, Arabako Pilota Federazioa, Irati Anda, EBETE-Kirol jarduerak, Alex Txikon, Asier Villalibre, Urola Garaiko Kirol Elkarteak, Kirolari Gaittun eta UDA Aretxabaleta.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: **Bixente Kapanaga 9 - lurreta**
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



POLITIKAN

MARKEL LARRUSKAIN
EH BILDU

Behetik gorako adibideak

Herritar talde bat, irabazi asmorik gabeko talde bat, irabazi asmorik gabeko talde bat, kausa justu baten alde lanean. Lan profesionala, modu demokratikoan, mimoso, enpresa mafiosoak jaun eta jabe diren industria baten. Ez dugu behar beste baloratzen egiten dutena. Zorionak, 40 minutu rock!

Presoen eskubideen alde egiten dutena baino gehiago, egiteko modua goraiatu nahi dut lerro hauetan. Kudeaketa publiko zuzenak berezko dituen mugen ondorioz, oraingoan behintzat, iristea ezinezkoa den toki batzuetara iritsi daiteke antolakuntza komunitarioa. 40 minutu rock musika jaialdia adibide ona da bestelako proiektu batzuetarako. Jaiak eta kultur espazioen kudeaketa datozkit gogora baina, uste dut, beste eremu askotarako ere eredu izan daitekeela. Irabazi asmodun enpresa pribatuen eta administrazio publikotik zuzenean kudeatutakoen tartean ez daude adibide asko. Gorazarre egin nahi diet marjina estu horretan mugitzen diren lagunei. Izan ere, herri bizi bat nahi badugu, ekinbide hauek bultzatzea ezinbestekoa da. Har ditzagun ereduak eta zabaldu ditzagun esparru guztietara.

Hauspotu dezagun egiteko modu hau.

Interes kultural immaterialeko ondare izendatu beharko genituzkeen proiektuak gutxietsita dauden garaian: gora 40, behera Last Tour!

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



ITZALAK

Zein itzal dagokio goiko marrazkiari?



MARRAZKIA

Lerroak osatu eta margotu marrazkia.





Iratxe Etxebarria.

"Lautik batek buruko nahasmenduren bat izango du bizitzan"

AURKEZPENA Iratxe Etxebarria (Dima, 1979) urte askoan aritu da kazetari, gaixotu zen arte; komunikatzen jarraitzen du orain, berbaldiak eta tailerrak eginda, besteak beste; hitzaldia emango du Hitz liburu dendan, otsailaren 27an, 19:00etan

Aritz Maldonado DURANGO

Laneko estres maila handiaren eraginez gaixotu zen Iratxe Etxebarria. Orduko bizipenak oinarri hartuta, liburua idatzi du. Buruko gaitzei buruz geroago eta berba gehiago egiten den arren, ikuspegi positiboago batetik berba egin behar dela dio. Hala egin gura izan du berak *7.300 miligramo eszitalopram* liburuan.

Gogotsu aurkezpenerako?

Beste aurkezpen batzuk egin ditut, eta politikak izan dira, bai-

na hau berezia izango dela uste dut. Durangoko Azokan ere egon nintzen, eta sekulako harrera izan nuen; beraz, badut zor moduko bat ere Durangaldeagaz. Aparte, Hitz liburu dendako Gaizkak ere oso harrera ona

"PROFESIONALAK AGINDUTAKOA BETE NUEN, BAINA NEURE ALDETIK ERE IPINI NUEN"

egin zion liburuari eta ilusioagaz nago.

Liburuak oihartzun handia du.

Durangoko Azokan autoekoizleen mahaian egon nintzen, eta asko saldu nuen. Oihartzun handia izan du, batez ere, asko garelako bizitzako momenturen batean buruko gaixotasunen bat izan dugunok; gutxitan berba egiten da honetaz jendaurrean, eta, beraz, orain sano dagoen pertsona bat ikustea 'ni ere gaixotu nintzen' esaten, esperantzatik bideratutako mezua da. Geroa-

go eta berba gehiago egiten da buruko gaixotasunei buruz, baina beti ere alde negatibotik. Nik kontatu gura dudana da gaixotu egin nintzela, baina osatu ere egin naizela. Eta osatu naiz nire osasunaren ardura hartu dudalako. Horretarako, gauzak alde izan ditut, hori ere esan behar dut, baina mezu baikor hori zabaltzea erakargarria dela uste dut. Buruko gaixotasunetatik ere osatu daiteke, baina ardura hartu behar dugu, ezin dugu utzi medikuen pilulen esku bakarrik.

Adituek esaten dute denok izaten dugula horrelakoren bat bizitzan, gutxienez behin. Eta Munduko Osasun Erakundearen (MOE) esanetan, lautik batek bizitzako momenturen batean horrelako nahasmendu bat izango du. Beraz, gizartean oso presente dagoen kontu bat da, baina ez da horri buruz berba egiten. Gainera, liburua bera ondo zainduta dagoela esango nuke, ilustrazio txukunekin ere. Horrek ere erakargarri egiten du.

Zenbat dira 7.300 miligramo eszitalopram?

Askok. Eta beti da gehiegi. Botikak hartzen egotea eroso da. Nik beti diot nire gaixotasuna negu ilun, hotz eta luze bat izan zela; eta botikak beroki bat dira negu horretan. Botikak hartzen jarraitzen duzu funtzionala zarrelako horrela. Baina beste kontu batzuk ere egin behar dituzu zure aldetik. Gainera, ez dira 7.300 miligramo nik hartu nituenak, hori baino gehiago izan ziren. Kopuru hori da nik negu hori zeharkatu guran hartu nituen botikak, ikusi arte udaberria hor dagoela. Hau da, dosi hori hartu nuen, psikiatrak dosia jaisten hasteko agindu arte. Ez nuen botikarik hartu gura, baina psikiatrak hauxe esan zidan: 'Hemen su bat dago eta hori amatatu egin behar da, eta, horretarako, botikak hartu behar dira'. Beraz, profesionalak agindu zidana bete nuen, baina, gero, nire aldetik ere ipini nuen.

Garrantzitsua da profesionalen babesa izatea. Ni, zorionez, psikiatra batek tratatu nau; beste

"JUNE BAONZA ILUSTRATZAILEAK OSO ERRAZ ULERTU DU NIRE BURUTIK PASATU DENA"

kasu batzuetan mediku generalistek hartzen dituzte gaixoak. Eta, horrez gainera, psikoterapia egiteko aukera ere izan dut. Psikologoak batera negu ilun hori zeharkatzeko marrazten duzun mapa da psikoterapia. Hala deskribatzen dut nik, baina gero norberak ibili behar du bidean zehar. Horretarako, I+I+I formula erabili dut: irakurri, burua enfokatzeko; idatzi, nire emozio eta sentipenak ulertu eta azaltzeko; eta azkenik, asko ibili. Bizitzan hainbat dieta egin dut pisua galtzeko. Ibiltzeak eta kirola egiteak onura garrantzitsuak dakartzio burmuinari, eta buruko osasunerako formula magiko bat direla esango nuke. Nik igarri dut. Ibiltzen hasi nintzenean, barruan nituen korapiloak askatzen hasi zirela konturatu nintzen. Niri burua ordenatzeko balio dit. Egia esan, beti ez duzu adorerik gauza horiek egiteko, baina, ahal denean, egin egin behar da buruko osasunerako eta osatze prozesurako. Norbera bere osasunaren arduradun egin behar da, ezin da botikekin bakarrik osatu.

Laneko estresagaitik gaixotu zinen. Liburua idazteak ere bere lana dakar. Bateragarriak izan dira?

Niretzat ez da lan bat izan. Idazten hasi nintzen, baina ez liburu bat argitaratzeko, gertatzen zitzaidana nik neuk ulertzeko baino. Buruko gaixotasun bat duzunean, gatx da zer gertatzen zaizun azaltzea. Horregaitik hasi nintzen idazten. Horregaz batera, asko irakurtzen hasi nintzen, eleberriak eta hasieran, baina gero neurozientzia liburuak irakurtzen hasi nintzen, nire gaixotasunaren jatorria ulertu guran. Eta gero hori kontatu egin gura nuen. Eta gerokoa, publikatzea, ez da beharizan bat izan; liburua bera terapia barruko kontu bat izan da lana baino gehiago.

June Baonza durangarrak ere parte hartu du.

Aspalditik ezagutzen dut June. Liburu gordina dela esango nuke, nahiko biluzten naiz bertan, eta mimo handiz egin gura nuen. Nire berbak polit ilustratzeko eskatu nion Juneri. Oso prozesu organikoa izan da. Landakon elkartu, eta han berba egiten genuen argi-ilunei buruz. Junek oso erraz ulertu du nire burutik pasatu dena, eta oso ondo marraztu du gero.



Karrika antzerki taldeko kideak.

Karrikak 'Hurrengo geltokia' estreinatuko du

ANTZERKIA Karrika antzerki taldeak 'Hurrengo geltokia' aurkeztuko du, zapatuan, San Agustin kulturgunean, 19:00etan; hiru urtean beste era bateko hainbat lan ere egin dute, baina denbora horretan taularatuko duten lehenengo lan propioa izango da

Aritz Maldonado DURANGO

Jakina da Karrika antzerki taldeak pasioz lan egiten duela. 1998an sortu zenetik, horrela lan egin du, eta horrela bizi izan dituzte antzezlanak San Agustin kulturgunean zein kalean ikusi dituzten antzerkizaleek, eta baita kalean paseoan zihozazela hankapaloak eta suzko dragoiak ikusi dituzten

KARRIKAREN ESENTZIARI EUTSI DIOTELA NABARMENDU DUTE, BESTE ESTILO BATEAN

herritarrek ere. Pasioz eta mimoz. Hain zuzen ere, mimo guztiagaz dabilta kozinatzen *Hurrengo geltokia*, euren *opera magna* berria. "Azken urteetan gauza asko egin dugu, baina uste dugu garaia dela gure obra propio bat taularatzeko, benetako obra bat, kakotx artean", azaldu du Maite Lopez Karrikako kideak. Barruko kez-

ka eta desirak plazaratzeko asmoz, zaleei *work in progress* bat erakutsiko diete zapatuan, hilak 22, San Agustin kulturgunean. "2022 inguruan iruditzen zitzaidan denbora asko ematen nuela itxaroten, eta hori eragozpena zela beste gauza batzuk egiteko. Ideia horretatik ekinda, zeozer kontaktu gura genuen, eta horixe plazaratu gura dugu. Azken hiru urteetan ez gara geratu: Gaba Baltza, irakurketa dramatizatuak, Durangoko Azokako Ikasle egunean parte hartu dugu... baina uste dugu badela garaia gure zaleei zeozer berria erakusteko", jarraitu du. "Gainera, beti dago gogoia zeozer erakusteko, ofizialki zeozer egiten gabiltzala erakusteko", gehitu du Gorka Madrazo aktoreak.

Urteetan, Durangaldeko antzerkigintzaren harrobietariko bat izan da Karrika, eta dozenaka lagun igaro dira bertatik. *Hurrengo geltokia* lanean, Maite Lopez, Naiara Lopez, Gorka Madrazo, Garazi Magunagoitia, Maialen Magunagoitia eta Julen Bordes aktoreek parte hartu dute. Borden kasuan, San Agustinen obra luze bat estreinatuko duen lehenengo aldia izango da. "2022ko otsailean sartu nintzen Karrikan. Esan dugun moduan, hiru urte hauetan lan dezente egin dugu, lan desberdinak, baina, egia esan, denboratxoa daramagu entzuten ia noiz egin behar dugun zeozer; beraz, jendea gu ikusteko gogoz dago", azaldu du, barre artean, Bordesek.

Bigarrena, Urrutiagaz

Karrikan lanean legez, *Hurrengo geltokia* obran ere lantaldeak Patricia Urrutiaren gidaritzapean behar egin du. "Ikasturte amaieretan, Arrazolan bazkaria egiten dugu urtero. Lehenengoz etorri eta gero, Patricia haxe esan zuen barre artean: 'Ez nauzue hemendik botako', aipatu du Bordesek. Hain zuzen ere, Karrikaren sortzailea izandako Jose Martin Urrutia *Txotxe* hil eta gero jarri ziren hartu-emanetan Karrikako kideak beragaz. "Sasoi hori oso heavya izan zen. *Deshakespeareizazioa* egitetik gentozen, *Txotxe* hil zen, eta gure burua geuk zuzentzeko ahalegina egin genuen. Ez zuen funtzionatu. Patricia deitu genion eta eskema guztiak apurtu zizkigun. Lan egiteko beste modu bat ekarri zuen, eta beste estilo bat", azaldu du Lopezek. "Gogoratzen dut *Karrikan* estreinatua aurretik beldur ginela ea Karrika zen ala ez, jendeak ulertuko zuen ala ez... Aldaketa ondo hartu zela ikusita, gozatua hartu genuen", gehitu du Maialen Magunagoitiak. Azken urteotan ikasitakoa nabarmendu gura izan du Madrazok: "Patrigaz mordoa ikasi dugu, ez bakarrik testu bat zelan irakurri; baita oholtzan zelan egon, edo lana zelan defendatu gure arimagaz. Eta, aldi berean, oso ondo pasatu dugu". Hortaz, Karrikako kideak pozik daude estilo aldaketagaz ere, lan berriek ere esentzia mantentzen dutela argudiatuta.



GAI LIBREAN

LIBE MIMENZA CASTILLO EHU-KO IRAKASLE ETA IKERTZAILEA

Terrorea II

Anbotoko haitzetan bada ikusten zaila den hegazti bat. Harriaren kolorez kamuflatzen da eta, hegoak astintzean, luma gorrien arrastoz betetzen du dena. Gehienok pasa dezakegu bizi oso bat han denik ere jakin gabe. Horixe da normalena. Ala ez? Ikusi al den sekula pareta-txorria?

Urdaibai Bird Center hegaztien ikerketa-zentroaren katalogoan ez da ageri. Ez da izango, beraz, Guggenheim Urdaibai proiektuari buruz egingo den entzute prozesuak bilduko dituen 1.000 lekukotzetako bat.

txio

Elur bola teknika jarraituko da laginketan; hau da, kontsultatuko den lehen pertsonak esango du hurrengo norekin hitz egin. Diseinu horrekin ezin da bermatu parte hartuko dutela eskualdeko euskaldunek, edo Gernikako umeez, edo Busturiako jubilatuek, edo proiektu nazional bat izanda iparraldeko kultur eragileek, edo eremuaren bioaniztasuna aztertu dutenek,

edo egin asmo den museo horretako komunak garbituko dituzten emakume etorkinek.

txio-txio

Detalle bat: ia-ia azpimarratuta aipatzen da New Yorkeko Columbiako Unibertsitatearen gidaritzapean egingo dela prozesua. *Wow, that's great!* Euskal Herriko Unibertsitateak izatea eginkizun hori bai erokeria, ezta? *Insane!*

txio txio txiiiiio

"KONTSULTATUKO DEN LEHEN PERTSONAK ESANGO DU HURRENGO NOREKIN HITZ EGIN"

Beste detaile bat: kontakizunak bilduko dira, pertzepzio patrioiak identifikatu, baina batutako informazio hori guztia ez da loteslea izango. Hemen da «dena herriarentzat baina herria gabe», *a new version*.

txio

Jendea entzungo da beraz elementu komunak identifikatzeko.

txio-txio

Itzulpena: marketin kanpaina bat egin nahi da familia osoari ondo etorriko zaiona.

Txiioo

Agintariek diote ezin dela baiezko edo ezezko batera sinplifikatu auzia. Alabaina, aukera ez bitarren aldekoak ez daude ados: bai, erantzuna da «ez».

txio

Hegazti isilak dira pareta-txorriak.

txioooo txio-txio

Alta, lurraldea babesteko egiten dute kantu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 21

ATXONDO Antzerkia
'Igaro' (Maren Basterretxea).
Amillenan, 20:30ean.

DURANGO Kontzertua
Suziri (Elektronika harrapakariak).
Rugby tabernan, 21:30ean.

DURANGO Kontzertua
Gonzalo Portugal gitarrista.
Otamotzena auzogunean, 19:00etan.

DURANGO Dendak Bai Fest
Azoka.
Landako Gunean (10:00-14:00 / 17:00-21:00).

ELORRIO Dantza
'Lana' (Osa-Mujika).
Arriola antzokian, 20:00etan.

ELORRIO Erakusketa
'Dolu perinatale ikusiaraziz'.
Kultur etxean, otsailaren 28ra arte.

IURRETA Kontzertua
Mon (Gorazarre Sabinari).
Korta tabernan, 20:00etan.

IURRETA Antzerkia
'Vida' (La Red).
Ibarretxe kultur etxean, 19:00etan.

ZALDIBAR Ipuin kontaketa
'Bi printzesa eta sorgin bat'.
Liburutegian, 17:00etan eta 17:30etan.

ZAPATUA 22

BERRIZ Ipuinak
'Iruki liburuak kontatzen familetan'
(Pello Añorga).
Kultur Etxean, 12:15ean.

BERRIZ Kontzertua
Joseba Irazoki.
Kultur Etxean, 19:00etan.

BERRIZ Hiltegiaren 26. urteurrena
Karropotea, 12:00etan, Kantoitik.
Bazkaria, 14:30etan. Gero, Binebar.
Perlata + Dj Totozar, 22:00etan.
Hiltegiaren gazteetxan.

DURANGO Kontzertua
Doinuzahar Kamara Abesbatza.
San Frantsisko elizan, 19:00etan.

DURANGO Antzerkia
'Hurrengo geltokia' (Karrika).
San Agustin kulturugunean, 19:00etan.

DURANGO Dendak Bai Fest
Azoka.
Landako Gunean (10:00-21:00).

IURRETA Bizikleta irteera
Laidara irteera. Txirindulari elkarte.
Iurretatik, 10:00etan.

IURRETA Kontzertua
El hombre del valle.
Korta tabernan, 20:00etan.

MALLABIA Txitxiburduntzia
Txitxiburduntzirako deia.
Parkean, 19:00etan.

ZORNOTZA Zorber Fest
Streetwise + Unidad Alavesa +
Nafarroa 1512 + Kaparrak.
Zelaieta parkean, 18:00etan.

ZORNOTZA Bakarrizketa
Gurutze Beitia.
Etxanoko ermitan, 20:00etan.

DOMEKA 23

ABADIÑO Txitxiburduntzia
Txitxiburduntzia egiteko deia.
Zelaieta herri eskolan, 11:30ean.

ATXONDO Txitxiburduntzia
Txitxiburduntzia, 13:00etan, Topen.
Ogia eta sua Guraso Elkartearen esku.
Irteera Apatako plazaatik, 10:30etan.

DURANGO Tailerra
Surrandien maskara tailerra.
Kriskitinen lokalean, 11:00etan.

DURANGO Kantuan
'Durango Kantari'.
Udaletxeko plazan, 12:00etan.

DURANGO Dendak Bai Fest
Azoka.
Landako Gunean (11:00-14:00).

DURANGO Txitxiburduntzia
Txitxiburduntzia.
Herriaren aurrean, 18:00etan.

DURANGO Txitxiburduntzia
Mendi Bueta, 09:00etan.
Txitxiburduntzia, 11:00etan.
Tabira auzoan.



ARTEDRAMA

ABADIÑO ETA DURANGO Antzerkia

Ibrahima Balderen bizitzaren kronika da *Miñan*, hark ahoz kontatua, Amets Arzallusek idatziz jasoa, eta Artedramak antzerkira egokitua *Otsailak 22, zapatua, Errota kultur etxean, 19:00etan. Otsailak 27, eguna, San Agustin kulturugunean, 19:00etan.*

DURANGO Antzerkia
'Moko-Indalecio Bizkarrondo-Bilintx'
(Gorakada).
San Agustin kulturugunean, 18:00etan.

ELORRIO Txitxiburduntzia
Plazan bira egiteko, 10:00etan.
Gero Txitxiburduntzia.
San Josen, 12:00etan

GARAI Txitxiburduntzia
Mendi ibilaldia, 10:30ean irtenda.
Bueltan Txitxiburduntzia. Sua eta
ogia Trumoitte elkartearen esku.
Plazan.

IURRETA Bizikleta irteera
Aretxaldera irteera. Txirindulari
elkarte. Iurretatik, 09:15ean.

IURRETA Basokoipetsu
Basokoipetsu egiteko deia.
Plazan, 12:30ean.

IZURTZA Txitxiburduntzia
Txitxiburduntzia. Sua eta edariak
udalaren esku. Plazan, eguerdian.

OTXANDIO Txitxiburduntzia
Txitxiburduntzia Arkotxe elkartean
(Guraso elkartea, Mirugain eta Arkotxe).
Plazaatik irteera, 11:00etan.

ZALDIBAR Txitxiburduntzia
Arietzura ibilaldia (Zaldua mendi
taldea. Gero, txitxiburduntzia Goierriin.
Janaria eta edaria antolatzaileen esku.
Plazan, 10:00etan.

ZORNOTZA Basokoipetsu
Basokoipetsu San Bartolome
auzoan. Sua eta sagardoa
antolatzaileen esku (Andra Mari
ikastola eta guraso elkarte).
Kalbario plazan, 10:00etan.

MARTITZENA 25

IURRETA Berbaldia
'Lurzoruaren kudeaketaren eragina
eguneroko ur-horniketan' (Hizlaria:
Ane Zabaleta, Geologian doktorea
eta EHUko Prozesu Hidro-
Ingurumenekoen Ikerketa taldekoa).
Herri Bibliotekan, 18:30ean.

EGUAZTENA 26

DURANGO Berbaldia
Etiketa nutrizionaleko informazioa.
Hizlaria: Mireia Alberdi.
Intxaurren Gazte eta Kultur
Bilgunean, 18:00etan.

ELORRIO Berbaldia
'Ekoizketa ekologikoa: zelan hasi'
(Hizlaria: Jon Basterra). Anbotopeko
dendak eta Urkiola Landa Garapena.
Iturri kultur etxean, 18:30ean.

EGUENA 27

ABADIÑO Kontzertua
Burning Heads.
Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.

DURANGO Berbaldia
'Zer da Euskaraldia?'.
Otamotzena auzogunean, 18:30ean.

DURANGO Liburu aurkezpena
'7.300 miligramo eszitalopram'
(Iratxe Etxebarria eta Iñaki Guridi).
Hitz liburudendan, 19:00etan.

ELORRIO Liburu aurkezpena
'Txalopin Txalo' kantu liburua.
Ametsolan, 17:00etan.

ZINEMA

ABADIÑO

TXANPORTA KULTUR ETXEA

Azken erromantikoak
Domeka 23: 19:00.

BERRIZ

KULTUR ETXEA

El profesor de esgrima
Domeka 23: 19:00.

Aftersun

Eguaztena 26: 18:30.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

La última reina

Barikua 21: 18:00, 20:30.
Zapatua 22: 19:00, 21:30.
Domeka 23: 19:30.
Astelena 24: 17:45, 20:15.
Martitzena 25: 17:45, 20:15.
Eguaztena 26: 19:00.

La tutoría

Barikua 21: 18:00, 20:30.
Zapatua 22: 19:00, 21:30.
Domeka 23: 19:30.
Astelena 24: 17:45, 20:15.
Martitzena 25: 17:45, 20:15.
Eguaztena 26: 19:00.

The Monkey

Barikua 21: 18:00, 20:30.
Zapatua 22: 19:30, 21:30.
Domeka 23: 19:30.
Astelena 24: 18:00, 20:15.
Martitzena 25: 18:00, 20:15.
Eguaztena 26: 19:00.

Polican

Zapatua 22: 16:45.
Domeka 23: 17:00.

Los exploradores

Zapatua 22: 16:45.
Domeka 23: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

Vermiglio

Zapatua 22: 20:00.
Domeka 23: 20:00.
Astelena 24: 20:00.

Sonic 3

Domeka 23: 17:00.

OTXANDIO

MAINONDOKO GIMNASIOAN

MendiTour, Mendi Filmeko onena:

Jaimie
Zazpi
Andrea an unpaved route
Zapatua 22: 19:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

María Callas

Barikua 21: 20:00.
Zapatua 22: 20:00.
Domeka 23: 20:00.
Astelena 24: 20:15.

Polican

Zapatua 22: 17:00.
Domeka 23:17:00.

Ciento Volando

Martitzena 25: 19:00.

IURRETA Berbaldia

'Gazteak eta pantailak' (Miren Ros Bidelagun proiektuaren sortzailea).
Ibarretxe kultur etxean, 17:30ean.

"Aurten gauza gehiago egiten nabil. Nire jokoaren abanikoa zabaldu dut"

SASKIBALOIA Oier Ardanza Bernaolak (2001, Durango) sei urte daramatza saskibaloiko zilarrezko ligan jokatzen, azkenengo laurak Zornotza STn. Aurten, denbora gehiagoan kantxa barruan, gorakada egin du. Jardunaldi batean jokalaririk baloratuena izan zen

Joseba Derteano ZORNOTZA

Bartzelona eta Gran Canaria taldeen harrobietan hainbat urte eman eta gero, Oier Ardanzak Teknei Zornotza taldean aurkitu du egonkortasuna. Eskolta postuan, aurten gehiago jokatzen dabil eta ederto aprobetxatu du hori. Batez beste, 11,5 puntu daramatza, iazko bikotza baino gehiago. Bederatzigarren jardunaldian, Cultural Lenonesaren kontrako partiduan, Bigarren FEB Mailako jokalaririk baloratuena izan zen, 28ko balorazioagaz: 21 puntu, 9 errebotete eta 5 asistentzia. Teknei Zornotzak Ardanzaren talentu guztia eta gehiago beharko du mailari eutsi gura badio. Aurten sufritzen dabil eta une honetan saiklapeneko azkeneko tokian dago.

Zilarrezko Ligan daramatzazun sei urteetan, aurtengoa da denboraldirik onena?

Bai, alde handiagaz da nire denboraldirik onena.

Zerk eragin du gorakada?

Gehiago jokatzen nabil, iaz halako bi. Klubean aldaketak egon dira eta jokalaririk asko lesionatuta egon da. Gero, entrenatzailearen eta, orokorrean, klubaren partetik konfiantza handiagoa sentitu dut. Dena kontuan hartuta, aurten protagonismo gehiago izaten ari naiz.

Zelan gogoratzen duzu jokalaririk baloratuena izan zinen partidua?

Zilarrezko ligan daramatzadan sei urteetan jokatu dudan partidurik onena izan zen. Hori seguru. Ez puntu kopuruagaitik bakarrik. Dena ondo irten zitzaidan: erreboteteak, asistentziak...

Arketipo bi daude eskolta postuan: kanpotik jaurtitzeko dutenak eta barrura sartzeko joera dutenak. Zeinegaz identifikatzen zara?

Aurreko denboraldietan, baloia hartu eta bota egiten nuen saskira. Aurten barneraketak eta gauza gehiago egiten nabil. Talde teknikoak asko lagundu dit alderdi horiek hobetzen. Nire jokoaren abanikoa zabaldu dut. **Teknei Zornotza sufritzen dabil. Zergaitik kostatzen ari zaio taldeari?**

Lesio asko izan dugu. Entrenamendu askotan zazpi-zortzi jokalaririk baino ez gara batu eta horrek eguneroko lana baldintzatu du. Beharbada hor galduko genituen hainbat partidua irabazteko behar genituen hiru-lau puntuak. Izan ere, partidua asko gutxigaitik galdu dugu. Orain, neguko merkatuan, Mohamed Niang Huelvatik Zornotzara bueltatu da, eta Bassala Bagayoko Bilbao Basketek utzita etorri da. Biak pibotak dira, eta oso onak. Bagayoko ACBn jokaturikoa da, orain urte bi lesionatu zen arte. Jokalaririk gehiagogaz lan hobea egin ahal izango dugu entrenamenduetan, eta hori emaitzetan islatzea espero dugu.

Aspaldiko partez, aulkian aldaketa egon da. Mikel Garitaonandia joan egin zen eta aurten Javi García Panizo dabil entrenatzaile. Aldaketa honek zelan eragin dio taldeari?

Entrenatzaile bakoitzak bere jokamoldea du, baina guretzat hori ez da arazoa. Gure lana da jokamolde berrietara egokitzea.

"LESIO ASKO IZAN DUGU. ENTRENAMENDU ASKOTAN ZAZPI-ZORTZI JOKALARI BAINO EZ GARA BATU"

Entrenatzaile guztiekin gertatzen da.

Teknei Zornotzaren garaipen guztiak, sei, etxean heldu dira. Ematen du etxeko partidua funtsezkoak izango direla mailari eusteko.

Etxekoak derrigorrez irabazi behar ditugu. Gure indargunea da. Azken urteetan oso partidua gutxi galdu dugu etxean. Aurkari guztiek azpimarratzen dute zer gatxa den Zornotzan jokatzea, eta hori aprobetxatu behar dugu.

Etxetik kanpora irabazteko, zertan hobetu behar da?

Esan dudan moduan, partidua asko puntu gutxigaitik galdu dugu. Detalle txikiak hobetu behar ditugu, eta horretan ahalginduko gara.

Zornotzara heldu arte etxetik kanpora eman dituzu urte asko. Bartzelonan eta Kanaria uharteetan. Denborak ematen duen distantziatik begiratuta, zelan gogoratzen dituzu urte haiek?

Beste gazte batzuekin alderatuta, nire bizimodua desberdina izan da. Nire helburuak betetzeko, etxetik joan behar izan nuen. Ez zen erraza izan: saskibaloia, ikasketak, lagunak eta familia urrun... Baina, distantziatik begiratuta, ez naiz damutzen. Lagun asko izan dut, bizimodu ona, eta oso pozik nago egin dudana.

Zornotzan daukazun egonkortasunak zeintzuk onura ditu?

Etxean nago, lagunekin, familia ondoan... Erosotasuna eta konfiantza garrantzitsuak dira jokalaririk batentzat, eta hori igartzen dut, egia esanda.

Orain beste modu batera ulertzen duzu saskibaloia?

Bai eta ez. Saskibaloia nire lana da. Goiz eta arratsalde entrenatzen naiz. Eguneroko hobetzea dut helburu, orain bost urte lez. Horretan berdina naiz.



Oier Ardanza Larrea, kiroldegiko entrenamendu batean.

Abadiñok eta Zalduek derbia jokatuko dute zapatuan

FUTBOLA Abadiñok goiko postuetan jarraitu gura du eta Zalduek puntuak behar ditu zulotik irteteko

J.D. ABADIÑO

Abadiñok eta Zalduek derbia jokatuko dute Futboleko Lehen-tasunezko mailan, zapatuan, 18:15ean, Astola futbol zelaian. Abadiño igoera postuen atarian dago eta borroka horretan jarraitzeko behar ditu puntuak. Zalduek bestelako beharrak ditu. Jaitsiera postuen ertzetik irteko behar du garaipena.

Durungaldeko beste taldeei dagokienez, Elorriok jaitsiera postuen jarraitzen du. Iurretako ere beheko aldean dabil eta borroka horretan aurkari zuzena den Sondika hartuko du etxean.



Derbia Astolan jokatuko dute. ABADIÑOKE

Lehenengo pausoak DRTn talde inklusiboa sortzeko

ERRUGBIA Durango Rugby Taldeko kide batzuk aniztasun funtzionala duten pertsonen talde inklusiboa sortzen dabilta. Entrenamendu egun bat ipini dute: barikuetan, 19:00etan. Interesa duten pertsona guztiei bertaratzeko deia egin diete

J.Derteano DURANGO

Durango Rugby Taldea lehenengo pausoak ematen dabil aniztasun funtzionala dutenen talde inklusiboa sortzeko. Geu Be, Lantegi Batua, Gorabide eta bestelako elkarte edo erakundeetan izan dira egitasmoaren berri ematen. Ekimenaren bultzatzaileek azaldu dute gura duten denentzat dutela atea zabalik. Barikuro egingo dituzte entrenamenduak, 19:00etan, eta interesa duten denei bertaratzeko deia egin diete.

Jose Antonio Martinezek erein zuen ekimenaren hazia. DRTko jokalaria ohi eta entrenatzaileak errugbi inklusiboko ikastaro bat egin zuen orain urte bi. Ikastaro hartan ezaguturiko jendearen bitartez, Getxo Rugby Taldeko talde inklusibora batu zen; talde mistoak izaten dira. "Errugbiaren munduan bizi izan dudana esperientziarik onena da", esan du Martinezek.

Horrela, DRTn antzeko talde bat sortu gura du. Egitasmo



David Roman, Jon Elgezabal, Mikel Ortuzar, Jose Antonio Martinez eta Asier Perugorria.

honetan bidelagun ditu David Roman eta Jon Elgezabal, eta DRT familiakoak diren Mikel Ortuzarrek eta Asier Perugorriak entrenamenduak egiten lagunduko diete. Jokalari nahikoa batuz gero, ekainera arte tre-

batzea eta datorren denboralditik aurrera Euskadiko Bultza Ligan parte hartzea da euren asmoa. Une honetan, Gasteizko Gaztedik eta Bilboko, Getxoko, Hernaniko eta Iruñeko taldeek jokatu dute liga horretan.

"Esperientzia aberasgarria da benetan"



NORA ROMAN PEREZ
DRT-KO
JOKALARIA

16 urteko Nora Roman durangarrak umetatik jokatu du DRT taldean. Aurten talde nagusian dabil. Bere bihotzeko kluba da, baina ez bakarra. Iaztik Hernani Rugby Taldeko talde inklusiboan ere badabil, eta esperientzia "aberasgarria" dela dio.

Iaz, 16 urtez azpiko Euskadiko selekzioko partidu batean, Hernaniko jokalaria batek talde inklusiboan jokatzeko proposamena egin zien Romani eta DRTko beste jokalaria biri. Hiruiek probatzea erabaki zuten. Kasualitatez, Durungaldean izan zuten estreinaldia, Elorrioko txapelketa batean. Harrezkero, hainbat bider jokatu dute.

"Esperientzia aberasgarria da benetan, eta dibertigarria. Niri asko ematen dit, eta errugbian gura duen edonork jokatu dezakeela erakusten dugu", adierazi du Romanek.

JOKALDIA



ENERITZ ITURRIAGA MAZAGA TXIRRINDULARITZA

Zergatik jarraitzen dut?

Denboraldi berria hastear da. Asteburu honetan bertan emango ditugu lehenengo pedalkada ofizialak errepidean. Gu hortxe egongo gara, beste behin, UCI mailako Eneicat taldearekin dena ematen. Ilusioz gainezka eta lanez lepo, talde bat eramateak ikusten ez den lan handia duelako atzean. Zeregin horri txirrindularitza akademiagaz egiten duguna gehitu behar zaio. Bizimodu estresagarria da sarritan, eta behin baino gehiagotan galdetu izan didate: Zergatik jarraitzen duzu?

Bada, hona erantzuna: beharizan handia dagoelako. Uste dut hamabost eta hamasei urteko gazteak, orokorrean, ez daudela prest profesionaletarako urratsa emateko. Urratsa baino gehiago, jauzia esan beharko nuke, koska handia dagoelako batetik bestera, eta horri aurre egitea ez da erraza. Adin horretako txirrindulari gazteak bigun ikusten ditut eta prestakuntza behar dute. Prestakuntza diodanean, ez nabil alderdi fisikoari buruz. Batez ere arlo psikologikoari buruz

"IKUSTEN DUT ZIKLISTA GAZTEAK ONDO HELTZEN DIRELA FISIKOKI, BAINA HAUSKORRAK DIRELA PSIKOLOGIKOKI"

"HORREGATIK AKADEMIAREN GARRANTZIA. GAZTEAK MENTALKI INDARTZEA DUGU HELBURU

nabil. Talde profesional batean nabilen heinean, neure begiekin ikusten dut ondo heltzen direla fisikoki, baina psikologikoki bigunak eta hauskorak direla. Adibide lez honako hau: talde profesional batean hilabete zeraman neska batek txirrindularitza uztea erabaki du, psikologikoki ez dagoelako prest profesionaletan ibiltzeko.

Horregatik txirrindularitza akademiaren garrantzia. Gazteak mentalki indartzea, horixe dugu helburu. Txirrindularitza profesionaleko exijentziak nortasun sendoko ziklistak eskatzen ditu, arazoaren aurrean amildu beharrean hazi egiten direnak, eta hori ez da egun batetik bestera lortzen. Pazientziatzat eraiki beharreko zerbait da. Beraz, hasieran esan dudana moduan, beharizan handia dagoelako jarraitzen dut. Txirrindularitza pedalkadak ematea baino askoz gehiago da, ofizio honek maila askotako eskakizun asko ditu eta gazteek esperientzia dugunon laguntza behar dute.

GUARDIAKO BOTIKAK

OTSAILAK 21, BARIKUA

09:00-09:00

Etxebarria, Montevideo etorb. 2. - Durango

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

OTSAILAK 22, ZAPATUA

09:00-09:00

Bazan, Uribarri 5 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

OTSAILAK 23, DOMEKA

09:00-09:00

De Diego, Intxaurren 22. - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

OTSAILAK 24, ASTELEHENA

09:00-09:00

Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

OTSAILAK 25, MARTITZENA

09:00-09:00

Mugica, Andra Maria 9 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

OTSAILAK 26, EGUAZTENA

09:00-09:00

Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

OTSAILAK 27, EGUENA

09:00-09:00

Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango

Iruarrizaga, San Miguel 15 - Zornotza

09:00-22:00

Sanchez, Urbitarte poligonoa, 4 P8 - Abadiño

Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza

ZORION AGURRAK

**GOZATU GOZATEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO

Tel.: 946 201 663

gozatudurango@gmail.com

661 40 14 00

Gozatu Gozotegia

gozatugozotegia



ABADIÑO

Irati Bazeta

Otsailaren 17an, Irati Bazetak 26 urte egin zituen. Egungo proiektuengaitik eta etortzekoak direnengaitik, zoridxonak eta muxu bihurri bat isiotutarron partez!

Urte askotarako!

Zorionak Kattaalin (1010.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitatekoak; hiru bide dituzu:

Internet

Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak

Etorri zaiten Anbotoren ordezkari zara edo deitu 946 232 523 telefonora.

ESKELAK

ESKELA



María Cubero Rosado
Ikastolako guraso eta bazkidea



Une latz hauetan Ikastolak bat egiten du familiaren saminarekin







Oparitu AnbotoKide txartela

Hileroko zozketa bereziak.
Poltsikorako abantailak.
Deskontuak Anbotoko zerbitzuetan.

Deitu
946 816 558
telefonora



SCHMIDT

SUKALDEAK ETA ETXEKO ALTZARIAK

Martxoaren 1etik 31ra

DESKONTU MUNDIALAK

ZURE SUKALDEKO ALTZARIETAN



LAU-HORTZA

BIXENTE
AIZPURUA

Politikeoa

EH BILDU eta EAJ-PNV oso pozik azaldu dira 2025erako aurrekontuak onartu dituztelako, Elorriori beste itxura berri eta aurreratu bat emango diotela adieraziz. Nik ez dut gauza zoragarrikerik nabaritzen akordio honetan eta bai kaltegarria izan daitekeen proiekturen bat. Adibidez: Kurutziazgako biribilgunearen proiektu hau talde bien programan batzen delako eta hasita egon behar zelako.

Kiroldegia handitzea, lehen PNVk Fytasan berria egin behar zela esaten zuenean.

San Pio kalea berritzea. Proiektu hau ere talde biek proposatzen zuten, baina nondik doa San Pio kalearen urbanizazioa? Norabide bakarrekoa izango denez, Labakuan trafikoa nabarmen handituko du eta autobusak biratzeko nahiko leku ez denean ziurtatzen.

Baina benetan, proiektu horiek EH Bilduk eta EAJk elkar bersarkatzeko bezain "historikoak" dira? Ala ezkutuan esatea komeni ez den eta PNVk beti aldarrikatu duen Pulla-Azkarreta industrialdea bihurtzeko akordioa dago? Zertarako lur gehiago industriadarako 16.000 m2 hutsik daudenean eta gainera azken bi urteetan beste hiru tailerrek (Igurria, San Eloy eta Arietaorbe) ateak itxi dituztenean?

Gainera, HAPOa berritzeko 450 pertsonak baino gehiagok hutsik edo kutsatuta dauden industria-eremuak berreskuratzeko apustua egin dugunean?

AKUILUA

"Zero azpitik 10 gradura ohitzea kostatu zait"

NAGORE HERZOG RODRIGUEZ INGENIARIA

Nagore Herzogek (Zornotza, 2000) Industria Ingeniaritza ikasketak amaitzeko praktikaldia egin zuen Tallinnen (Estonia). Amaitzean, han geratu zen lanean

Aitziber Basauri ZORNOTZA

Nagore Herzog 2023ko abuztuan joan zen Estoniara. Ingenieritza elektronikoko digitalaren aplikazioan lan egiten du, kalitate arloan.

Zer dela-eta Tallinnen?

Bikotekideak Estonian lan egiten zuen, eta nik ikasgai bat baino ez nuen falta Industria Ingeniaritza ikasketak amaitzeko. Eta praktikaldia Estonian egiteko aukera bilatu nuen. 2023ko abuztutik abendura arte praktikak egin eta gero, enpresan lanean geratu nintzen. Hemen nago harrezkero.

Ondo egokitu zara herrialdera?

Kalera irten eta zero azpitik 10 gradura egotera ohitzea apur bat kostatu zait. Gainera, isiltasun handia dago. Batzuetan, autobusean noanean ematen du neuk bakarrik egiten dudala berba. Baina, oso ondo nago; ondo egokitu naiz. Egia da lagun estoniar askorik ez dudala, atzeritarrekin ez dira batere irekiak. Lagun taldean brasiladarrak, indiarrek... toki askotakoak gaude.

Negua gogorra da Estonian. Horretara egokitzea izan da gatxena?

Oso gogorra. Aurreko negua urri amaieran hasi zen, eta maiatzera arte elurra egin zuen. Maiatzetik irailera bitartean, bero



"FAMILIAGAZ ETA LAGUNEKIN EMATEN DUDAN DENBORA GEHIAGO BALORATZEN IKASI DUT"

handirik egiten ez badu ere (20-25 gradu), eguraldi ona egiten du. Dena oso berde jartzen da eta Euskal Herria gogorarazten dit, hemen ia mendirik ez bada ere. Bai, gatx egin zait klimara egokitzea, baita janarira ere.

Barazkiak, fruta... beste herrialde batzuetatik dakartzate, heldu bakoak. Hemen landu ez den tomateak ez du ia zaporerik. Bestalde, okela oso garestia da.

Zerk harritu zaitu gehien?

Estonia oso aurreratuta dago, dena dago digitalizatuta. Bost egunetara, banuen bertako nor-tasun agiria; hasierako tramitea egiteko ere segituan hartu ninduten. Horrek onerako harritu nau. Txarrerako, osterara, estoniarren izaera hotza. Laguntza eskatu dudanean, modu atseginetan lagundu didate, baina horretara mugatzen dira.

Zeren falta igartzen duzu gehien?

Familiarena eta lagunena, jakina! Baina eurekin emandako denbora gehiago disfrutatzen eta baloratzen ikasi dut. Euskal Herriko klimaren eta janariaren falta handia ere igartzen dut.

Ez da Zornotzatik kanpora egiten duzun lehenengo egonaldia.


Kalifornian (AEB) hilabetean egon nintzen, 16 urteagaz, ingelese ikasten. Ondoren, Maltan eta Istanbulen (Turkia) egin izan ditut praktikaldiak, eta Muniche- ra (Alemania) joan nintzen Erasmus programagaz. Han ezagutu nuen bikotekidea; Portugalekoa da. Bidaiek leku askotako laguna izatea eta askotariko kultura eta gastronomiak ezagutzea ekarri didate.

Etorkizunean non ikusten duzu zeure burua?

Estoniako klima nahiko gogorra egiten zaigu, eta bi-hiru urte barru Suitzara edo Alemaniara joatea pentsatu dugu. Eta aurrerago, Bartzelonara (Herrialde Katalanak); hondartza gura dugu. Zornotza txiki geratu zait (barrez).

Beste nora joan gura zeunke?

Japoniak asko erakartzen nau.



Bizimodu berri bat Durangon.

➤ **2. Fasea eraikitzen hasi gara.**

Zure hitzordua eskatu:
946 462 041
sukia.com

sukia

Zure etxean zaude. Estás en tu casa.